



Istripuen ikerketa

Zer da laneko istripu bat?

Gertaera anormal, ezusteko eta nahi gabekoa, lanaren garapen arrunta ustekabeen eta bat-batean eteten duena eta **pertsonei kaltea** dakarkiena, edozein dela ere kaltearen larritasuna eta mediku arreta eskatu nahiz ez.

Legezko zer betebeharrak ditu enpresaburuak?

- Langileen osasunerako kalteren bat gertatuz gero, enpresaburuak **ikerketa** egingo du, istripuaren arrazoiei antzeman eta neurri egokiak hartzeko.
- **Laneko agintaritzari idatziz jakinaraztea** lanean ari ziren bitartean bere zerbitzuko langileen osasunerako gertatutako kalteak.
- Langileari lanegun batetik gorako laneko ezintasuna eragin dioten **laneko istripuen eta gaixotasun profesionalen zerrenda bat** edukitzea.

Zein da ikerketaren helburua?

Istripuaren "arrazoiak" zein izan diren jakitea, horrek emango baitigu haiek kontrolatzeko zuzenketa neurriak diseinatzeko eta ezartzeko aukera.

ARRETA BEREZIA EMAN BEHAR ZAIE:

